

**II - ARABAKO LURRALDE
HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA****URIZAHARREKO UDALA****Behin betiko onestea Udalaren 2020ko ekitaldirako aurrekontua**

Udal honek, 2020ko urtarrilaren 23an egindako osoko bilkuran, erabaki zuen 2020ko ekitaldirako aurrekontu orokorrari hasierako onespena ematea, eta ez da aurkeztu inolako erreklamaziorik edo oharrik erabaki horren aurka. Beraz, bat etorri Arabako Lurralde Historikoko Toki Erakundearen Aurrekontuei buruzko otsailaren 9ko 3/2004 Foru Arauaren 15. artikuluan xedatutakoarekin, aurrekontu hori behin betiko onetsirik gelditu da. Hona hemen haren laburpena, kapituluka:

Gastuen egoera

KAPITULUA		ZENBATEKOA
I	Langile gastuak	78.775,00
II	Ondasun arruntak eta zerbitzuak erostea	125.870,26
IV	Transferentzia arruntak	28.200,00
VI	Inbertsio errealak	115.031,66
VII	Kapital transferentziak	36.000,00
Gastuak, guztira		383.876,92

Diru sarreren egoera

KAPITULUA		ZENBATEKOA
I	Zuzeneko zergak	115.966,00
II	Zeharkako zergak	8.000,00
III	Tasak eta bestelako diru sarrerak	5.850,87
IV	Transferentzia arruntak	114.316,85
V	Ondare bidezko diru sarrerak	121.791,00
VII	Kapital transferentziak	17.952,20
Diru sarrerak, guztira		383.876,92

Iragarki honekin batera, erakunde honetako lanpostu zerrenda argitaratzen da eranskin gisa, bat etorri Euskal Autonomia Erkidegoko Funtzio Publikoaren 6/1989 Legeak 16. artikuluan xedatutakoarekin.

Eranskina

Lanpostu zerrenda

A) Gaikuntza nazionala duten funtzionarioak. Lanpostuaren izena: Idazkari-kontuhartzailea.

Administrazio egoera: aktiboan. Lanbide kategoria: A1 taldea, 26. maila. Titulazioa: zuzenbideko, Politika Zientzietako, Soziologiako edo Ekonomia eta Enpresa Zientzietako gradua. Hizkuntza eskakizuna: 4, derrigortasun datarik gabe. Berariazko osagarria: 20.677,02 euro. Betetzeko era: lehiaketa. Destinoa: administrazioa.

Urizaharra, 2020ko otsailaren 25a

Alkatea

JUAN JOSÉ BETOLAZA PINEDO